

KIROLA ETA AISIALDIA



Donostiak hamaikatxo plan dibertigarri eskaintzen dizkigu; lorategiak, hondartzak eta jolas-parke ugari ditugu!

Baina, horretaz gainera, baditugu leku magikoak ere.

Ziur izan zarela haietan. Baina badakizu haien historia? Badakizu zenbat denbora daramaten gure artean?



01 IGELDOKO JOLAS-PARKEA




Igeldo mendiak mugatzen du Donostia mendebaldetik, eta, gainera, hiriko berdegunerik mardulena da. Inguru hori hobeto ezagutu nahi baduzu, **hemen** topatuko duzu informazio gehiago.



Tontorrean, jolas-parke berezi-berezi bat dago. 1912an inauguratu zuten, Belle Époque garaiko esentziarekin, eta, sinestezina badirudi ere, garai hartako elementu asko daude oraindik ikusgai.

Inoiz entzun duzue «esparru paregabea» esamoldea? Izen horrekin ezagutzen da Kontxako badiaren gaineko ikuspegi osoa, eta Igeldo mendiko begiratokia da, hain justu, hura ikusteko tokirik ospetsuena eta tradizionalena. Handik atera dezakegu hiriko argazkirik bereizgarriena.





Igeldo mendiak 20 atrakzio baino gehiago ditu. Baina parke hori desberdina da, vintage jolas-parke bat baita. Zer esan nahi du horrek? Bada Suitzar Mendia, Karrusela, jolas-etxolak edo Ibai Misteriotsua ez direla nabarmentzen abiaduragatik edo loopingengatik, baizik eta duela hainbeste urte eraikitako atrakzioak izateagatik.

Parkearen erdian, Dorrea topatuko dugu: Igeldoko itsasargia eraiki aurretik ere funtzio horixe betetzen zuen.

Dagoeneko kontua galdu dugu zenbat kasino zeuden Donostian Belle Époque garaian! Gogoan izan, halaber, garai hartan «kasino» esaten zitzaieela zuzeneko musika zuten lokalei; entretenimendu asko izaten ziren haietan, ez jokook eta apustuak bakarrik.

Kasinoaz gainera, dantzalekua eta zinetografoa ere bazituen parkeak. Imajinatzen duzu nolakoa izango zen jaiegun bat inguru hartan?



BITXIKERIA!

Jende askok ez daki, baina Donostiak hiru jolas-parke izan ditu, guztiak XX. mendearen hasieran inauguratuak: Uliakoa, Martutenekoa eta Igeldo mendikoa. Gaur egun, Igeldokoa besterik ez zaigu geratzen.



Uliako jolas-parkean teleferiko bat zegoen. Zeinen leku ederra!

Gehiago jakiteko: Suitzar Mendia.

Parkeko atrakzio gogojoenetako bat Suitzar Mendia izenekoa da. Izan ere, bakarra da hainbat arrazoirengatik.

Mundu osoan oraindik martxan dagoen altzairuzko errusiar mendirik zaharrena da! Ibilbideak 400 metro ditu luzean, eta gehieneko abiadura 50 km/h da.

Bi tren ditu, bai eta *brakeman* bat ere (balaztari ematen dio pertsona), zeinak bi autoen artean bidaiatzen baitu balatza kontrolatzeko.

Errusiar mendia ala suitzar mendia?

Errusiar mendien jatorria herrialde hartako dibertimendu-modu bati zor diogu, Errusia Parkekoaldean neguaz gozatzeko asmatutako entretenimendu bati, alegia. Zurezko txirrista handiak izaten zituzten, eta, negu-partean, busti egiten zituzten, izotzezko geruza lodi bat sor zedin. Ondoren, handik behera botatzen ziren, balaztarik gabeko lerekin.

Horregatik, guk «errusiar mendi» izenez ezagutzen dugunari errusiarrek «mendi amerikar» deitzen diote; izan ere, Amerikako Estatu Batuetan garatu zituzten gaur egun ezagutzen ditugun egiturak.



Gureak, ordea, ez du izen hori; errusiar mendi mota bar den arren, suitzar mendi bat ere badelako.

Errusiar mendiek egitura mugigarria dute, metalezko barren gainean ibiltzen baitira. Hau da, leku batetik bestera eraman daitezke, beharrezkoa balitz. Suitzar mendien egitura, berriz, finkoa da. Igeldo mendikoa, esaterako, hormigoizko pista baten gainean dago muntatuta.

Gehiago jakiteko:
funikularra.

Funikularra bagoi-tren bat da. Trenbide batetik zirkulatzen du, eta barrenetik tira egiten dion kable bati esker mugitzen da. Tren-mota hori oso motel mugitzen da, eta batez ere malda handiko eremu laburretarako erabiltzen da.

Funikularraren alderdi erakargarrietako bat zera da, apenas aldatu dela urteekin. Beraz, ehun urtetik gorako garraiobide batera gogo zaitzke.




1912



1952



2020



O2 ANOETAKO ESTADIOA

Anoetako Udal Estadioa hiriko kirol-esparrurik handiena da. 2019tik, Reale Arena du izena, babesle-kontuak direla eta.

Ia 40.000 ikuslerentzako lekua du. Bertan, Real Sociedad eta Real Sociedad B taldeek jokatzen dute, nahiz eta noizean behin beste kirol jardunaldi eta musika kontzertu batzuk ere egiten diren bertan.

Emakumezkoen Realak, berriz, Zubietan jokatzen ditu denboraldiko partidak. Laster hemen jokatzea espero dugu!!



Anoetan hainbat artista eta musika-talde izan dira, hala nola U2, The Rolling

Badakizu zer den estadio bat?

Jatorriz, estadioek atletismo-zelaiei egiten zieten erreferentzia. Futbol-zelaiek «futbol-estadio» izena hartu zuten, beren antzekotasunagatik. Anoeta estadio bat zen, eraiki zenean atletismo-pistak baitzeuzkan. Baina 2019an erretiratu egin zituzten, berritu zutenean.



Anoetaren historia.

1980ko hamarkadaren amaieran, erabaki zen estadio modernoago bat eraikitzea, 1913an inauguratutako Atotxa futbol-estadio historikoaren lekuan. Atotxak 26.700 ikuslerentzako tokiak zuen, eta Anoeta 32.000 ikusle izatera igaro zen.

Estadio berria Anoetan eraikitzea erabaki zen, ordurako kirola praktikatzeko gunea baitzen. 1950eko hamarkadatik, Anoeta izeneko kirol-hiria zegoen bertan. Ordura arte, askotariko instalazioak

zuten: gazteentzako aterpetxe bat; saskibaloia-, eskubaloia-eta hockey-pista estali gabeak; hartxintzarrezko futbol-zelaia; 25 m-ko igerilekua, tranpolin olinpiko eta guzti; gimnasioa, tenis-pista eta errautsezko atletismo-pista.

Apurka-apurka, estalitako instalazio berriak sortu ziren (pabiloia, frontoi laburra, trinketa, frontoi luzea), belodromo bat (ondoren, estali eta barruan atletismo-pista bat ipini zuten) eta izotz gaineko patinaje-pista bat.



Atotxa eta suziriak

Realak Atotxan jokatzeko zenean, zale batek suziri bat jaurtitzen zuen, bisitariak sartutako golen berri emateko. Eta Realaren golak jakinarazteko, berriz, bi suziri. Marinelentzako mezua zen, beren talde kutuna nola zihoan jakin zezaten.

Hiri oso geldirik geratzen zen igande arratsaldeetan, lehen suziria jo orduko, bigarrena ere noiz entzungo zain.

Anoetara aldatzean, usadio horrek erabat galdu zuen zentzua, suziriak ez baitziren entzuten itsasotik. Ondorioz, bertan behera utzi zuten ohitura hura.

Baina 2006-2007 denboraldian (jaitsiera gertatu zenean) tradizio hori berreskuratu zen, ezin izan baitzen telebistaz eman Sevillaren aurkako partida. Tradizio hark jarraitzen du gaur egun ere.



Partida-egunetan milaka zale ikusten ditugu estadiora «topoz» eta autobusez iristen; horregatik, asko gustatzen zaigu gogoratzea denboraldi batean tren txutxua izan zela estadiora joateko garraio-bideetako bat.






O3 TXURI-URDIN IZOTZ-JAUREGIA



Txuri Urdin Izotz Jauregia Anoetako kirol-ingurunean dago. 1971n eraiki zuten, eta bi aldiz eraberritu dute erabat. Beraz, 50 urte baino gehiago dituen arren, izotz-pista perfektu batez goza dezakegu.

Hemen jokatzeko dituzte bere partidak izotz gaineko Txuri-Urdin hockey-klubak, eta, patinaje artistikoko Txuri Berri klubaren pista izatez gain, curlinga eta izotz gaineko balleta ere praktikatzen dira bertan.

Entrenamendurik edo partidarik ez dagoenean, patinaje libreko pista da, eta edonor joan daiteke pistaz gozatzera (han bertan alokatu daitezke patinak eta kaskoa).



Txuri-Urdin izotz gaineko hockey-kluba Espainiako lehen klubetako bat izan zen, bai eta liga gehien irabazi dituen taldea ere!



Gehiago jakiteko: curlinga.

Doitasunezko kirol bat da, harri astunak (18 kg) izotzaren bidez mugitzean datzana.

Eskoziar jatorrikoa da, eta Erdi Arotik praktikatzen da!



Sekretutxo bat:

Curlingean jokatzeko mundu osoan erabiltzen diren harriek jatori bera dute, Ailsa Craig izeneko Eskoziako kostaldeko uharte txiki mortu bat. Magmaren konposizioak eta hozte-prozesu motelak ezaugarri paregabeak ematen dizkiote granito berde horri: helduleku berezi bat izotzetan, eta talkak jasateko gaitasuna, ezpaldu edo hautsi gabe.

